ANDOAINGO UDALA

38. RIKARDO ARREGI KAZETARITZA SARIAK BADITU IRABAZLEAK

Zigor Olabarriaren *Oldarraldia ikerketa*k eta *NI.EUS* proiektuak irabazi dute Kazetaritza eta Komunikazio saria, hurrenez hurren.

2026.11.20.- Azaroaren 20an, ostiral ilunabarrean, ospatu da Andoainen 2026ko Rikardo Arregi Kazetaritza Sarien ekitaldi nagusia. Bertan eman dira ezagutzera aurtengo saridunak: kazetaritza sariaren irabazlea ***Oldarraldia ikerketa,*** Argia hedabiderako **Zigor Olabarria Oleagak** sorturiko erreportajea izan da. Komunikazio saria, berriz, ***NI.EUS*** *proiektuari,* Puntu Eus Fundazioak, Iametzak eta Azkue Fundazioak sustatutakoari eman diote.

Bi sari, kazetaritza saria eta komunikazio saria, biak maila berekoak: 9.000 euro eta Xabier Lakak RAKSerako berariaz egindako oroitikurra eman dira sari banatan. Jarraian saridunak izendatzeko epaimahaiak ezagutzera eman dituen arrazoiak, hitzez hitz:

KAZETARITZA SARIA

Oldarraldia Ikerketa, Zigor Olabarria Oleagak Argia aldizkarian argitaratutako kazetaritza lana.

Azken urteetan, EAEko postu publikoetarako hizkuntza eskaeren kontrako erabakiak hartzen dituzte epaileek. “Oldarraldi judizial” horren atzean dagoenaz ikertu du Argia astekariko Zigor Olabarria kazetariak. Hiru urteko ikerketa zorrotzari esker eta kontraste lanak iturri askorekin egin ondoren, Errenteriako Udalaren lan deialdiaren kasua azterturik, kazetariak frogatu du helegite horien atzean pertsona eta talde antolatuak daudela. Ikerketa kazetaritzaren adibide garbi bat da honakoa, aurretik euskal gizartean zabalduta zegoen kezka bati erantzun diona.

Dudarik gabe, hiru ataletan argitaratu den erreportajeak inpaktu handia izan du Euskal Herrian. Erreportajeak eztabaida biziak eragin zituen, eta gainerako hedabideetako gai nagusi bihurtu zen hainbat egunez, eta arduradun politikoen, sindikatuen, alderdi politikoen, erakundeen, elkarteen eta jendearen ahotan ibili zen. Euskararen kontrako neurriak eta diskurtsoak zabaltzen ari diren garaian, Argiaren erreportaje sorta bezalakoak funtsezkoak dira, laguntzen dutelako auziaren sakontasuna ulertzen eta hariak mugitzen dituztenak identifikatzen. Euskararen etorkizunaren eztabaidarako ezinbestez jakin beharreko informazioa dago hor.

KOMUNIKAZIO SARIA

NI.EUS**,** Puntu Eus Fundazioak, Iametzak eta Azkue Fundazioak sustatutako ekimena.

Euskarazko posta eta hodeia eskaintzen duen zerbitzua da ni.eus, Iametzak, PuntuEUS fundazioak eta Azkue fundazioak bultzatuta, Eusko Jaurlaritzaren eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntzarekin. Posta elektronikoa, fitxategiak gorde eta editatu, eta egutegia zein kontaktuak kudeatzeko aukera ematen du doan. 2020an sortu bazen ere, 2026an Nextcloud software libreko plataforman oinarrituta bertsio-berritu da. Egun 7.000 erabiltzaile baino gehiago du.

Digitalitatearen bilakaera abiadura oso handian gertatzen da eta, zentzu horretan, irudi lezake posta eta hodeia eskaintzen dituen zerbitzu bat ez dela bereziki berritzailea. Aitzitik, posta elektronikoa Interneten aritzeko identitate-puntu funtsezkoenetakoa da, eta hodeia egunerokoan erabiltzen dugun oinarrizko zerbitzu bat. Aldi berean, ia esklusiboki helburu komertzial eta estraktibistekin merkaturatzen dira zerbitzu hauek. Zentzu horretan, ni.eus-ek eremu digitalean euskaraz aritu eta aurkezteko gabezia historikoari erantzuten dio eta digitalean ere euskaraz bizitzeko funtsezko baliabidea eskaintzen du.

Ekitaldiaren gidaritza **Amaia Uribek** egin du, eta hitza hartu du Andoaingo alkate **Andoni Alvarez Lete** jaunak. Irabazleek ere hitza hartu dute eskerrak emateko. Bertan izan dira, aurtengo RAKSeko zortzi finalistak, hainbat erakundetako ordezkariak, euskalgintzako eragile ugari eta Andoaingo herritarrak. Ekitaldiak izan ditu gozamenerako musika eta dantza tarteak ere, alde batetik **Amaia Aldalurrek** pianoan eta **Mikel Emezabalek**, klarinetean, Arritxu Iribarri bereziki eskaini dioten musika piezarekin eta, bestetik, **Gero Axular** dantza taldeak taularatu duten emanaldiarekin.

Epaimahaiak azaro hasieran zortzi finalista izendatu zituen aurtengo sarirako. Kazetaritza Sariaren finalista izan dira, irabazlearekin batera, ***Menopausia***, Izaro Garciak eta Ander Zarragak HIRUKA hedabidean argitaratutako erreportaje eta artikulu sorta; ***Migrazio krisia: Ceutako auzia***, Aitor Garmendia Etxeberriak BERRIA hedabiderako sorturiko artikuluak eta bideoak; eta ***Lourdes Iriondo, ez gara alferrik pasako*** izeneko dokumentala, Inge Mendioroz Ibañezek zuzenduta eta Idoia Garzesek idatzia. Bestalde, Komunikazio Sariaren finalista izan dira, irabazlearekin batera, ***Euskal Herriko historia 100 objektutan*****,** Euskal Wikipediaren proiektua; ***Argiz(H)ari*****,** Pantxix Bidart eta Marie Bidartek Euskal Irratietarako, Iparraldeko euskarazko irratien sarerako ekoitzitako podcasta; eta ***Latxa,*** HITZ Zentroak sustatutako txatbota.

Finalisten artean sarituak aukeratzeko ardura epaimahaiak izan du, eta **Marta Lasa Goñi** Andoaingo Udaleko Euskara zinegotzi ahalduna izan da mahaiburu. Harekin batera mahaikide izan dira: **Miren Berasategi Zeberio** (Deustuko Unibertsitateko irakasle eta ikerlaria), **Eneko Bidegain Aire** (idazlea eta Mondragon Unibertsitateko HUHEZI fakultateko irakaslea), **Itxaro**

Borda Xarriton (idazlea eta prentsa kolaboratzailea), **Angel Erro Jimenez** (idazlea, itzultzailea eta prentsa kolaboratzailea), **Pantxika Maitia** (kazetaria), **Libe Mimenza Castillo** (UPV/EHUko irakaslea eta ikerlaria) eta, idazkari lanetan, **Arantza Aguado Perugorria**, Andoaingo Udaleko Euskara teknikaria.

2026ko sari banaketa ekitaldian, epaimahaiak ohorezko mugarria eman dio **Arritxu Iribar Egaña** kazetariari, eta Xabier Lakak diseinatutako lana oparitu. Hauexek epaimahaiak baloratu dituenak sari hauek emateko garaian:

Ohorezko mugarria: *Arritxu Iribar Egaña*

Duela gutxi arte, kirola gizonezkoen lurralde zaindua zen, baina hondar hamarkada hauetan emakumeak sartu dira irratietan eta telebistetan kirol ekitaldiak komentatzeko. Dagoeneko nehor ez da harritzen ahots femenino batek kirol emankizunak aurkezten dituenean. Karia horretara, Arritxu Iribar pionier bat izan da euskarazko eta euskal prentsaren alorrean.

Txirrindularitzari lotua da bere boza. Bere irri ezaguna. Bera ere txirrindularia izan da. Jendartean inplikatua ere bai, EH Bilduko Zumaiako udaleko zinegotzia izan zelako bi agintalditan. Joserra Garciarekin hasi zen goizeko ordu txikietako magazina aurkezten, handik bi urteren buruan kirol sailetara pasatu aitzin. Hiztegia eta gaia partekatzeko moduak landu ditu eta iragan uztailean erretiratu zen berrogei urteko lanaldiaren ondotik. Argian, Onintza Enbeitaren galdeei erantzunez hauxe argi utzi zuen: “gehien gustatzen zaidanean lan egin dut eta nire txirrindularitzaren ikuspegia konpartitu ahal izan dut!

Elkarrizketa berean aitortzen zuen “24 ordutan gara kazetari” eta bere baitan ez duela sekula utziko berriak biltzen aritzeko zeregin hori. Arritxu Iribar bezalako esatariek irratia, Euskadi Irratia bereziki, erreferente gisa atxikitzera eraman dute jendea, teknologia berriek desagerraraziko zutela pentsatzen zen unean.